

Nafarkaria

Egunkaria

Ostirala, 1997ko abuztuaren 8a

*



Matrakaren barrualdea ezezaguna da jende frankorentzako, eta infernua gehientsuendako.

Naturaren ikuskizuna

■ Ia-ia batere mugitu gabe, naturak eskeintzen dituen altxor ugarietaz gozatzeko aukera eskeintzen digute Natura Interpretatzeko Zerbitzuek. Horrelako hirü ditugu Nafarroan: Bertitzen, Erronkarin eta Otsagin. Hauei esker, kanpotik etortzen zaizkigun bisitarien gure ingurunea ezagutu dezakete baina herria zaintzen geratu garenontzat ere ez da proposa-

men makala. Teknologia berriak, oraingoan, naturaren zerbitzura daude, eta hori dela eta gauza ikusgarriak eta bitxiak aurkitu ditzazkegu zentru hauetan. Ahoa zabalik uzteko modukoak. Horrela, Bertizarana, Zaraitzu eta Erronkariko bailarak ezagutzeaz gain, egun entretenigarri bat pasatzeko aukera ere badugu. ■

Zubian barna

BINGEN AMADOZ



Behetik neukan lurrari noizean behin bultzada emanez, hamakak kulunka egiten zuen. Gorenean nengoenean zeru izartsua ikusten nuen bere handitasun osoan. Gehiago ziren han izarrak agian, distiratsuago seguru baietz, behaldean iluntasunean mugitzen baitzen bizitza, eguna ilundu ta gero. Palmondoko teilatutik kanpora segida ematen zuen estalpera mugimendu erritmikoak eramaten ninduenean, ipurtargiaren joan-etorriak nituen gertu. Beti ere mehatxugarri hian urruneko mendiko goialdetik zetorkidan kanpamendu militarreko argi ahula, eta ahu-

lago oraindik sukalde-egongelan piztuta zegoen gas-kriseiluak zirrikietatik zabaltzen zuena. Komunitateko lan talde batek bertan zeukan batzarrea eta bertako mintzaera xamurraren oihartzun apalek ez zuten gau isilaren xarma hausten.

Aurrez aurre zurezko paretaren kontra eserleku xumean Lola zegoen jarrita. Ilargipeko liluran murgildurik berataz ahantzia nengoan. Bera nitaz ere bai agian. Isiltasuna genuen artean bereizgarri baino kolarri.

-Lola, hor zaude?, galdetu nion halako batean.

Lola

-Bai, hemen nago, itzalean, erantzun zidan.

Paradisu ilun hartan nork esanen luke herioa erasotzeko prest zelatan zegoe-la.

Lolak bertan luze bizitzeko zeukan borondate tinkoari ez zion zelatari horrek kupidarik erakutsi.

Medikuak horrenbeste behar dituen herriak, emakume isila bezain zintzoa zen hura, itzultzerik ez duen itzalean utzi behar izan du arestian.

Izanen al da bere hutsunea betetzeko behar bezainbeste ausardia duen inor? X

KONTZERTUAK

Iruña: El nido del Cuervo taldeak kontzertua eskainiko du gaur, arratsaldeko 7:00etan, Gaztediaren Etxean.

Leitza: Benito Lertxundik kontzertua eskainiko du Amazabal frontoian, bihar, 22:00etan. Sarrerak 1.000 pezeta balio du.

Leitza: Tiburtzio Deunaren festetan etzi Skalariak eta Salvate si puedes taldeek kontzertua eskainiko dute, gauerdian, txoznetan. Toki eta ordu berean, baina asteartean, abuztuak 12, txanda hartuko diete Balerdi Balerdi eta King Mafrundi taldeek. Bi talde horien lekukoa Berpiztu, Debe-katuak eta Seihots taldeak hartuko dute ostegunean.

Altsasu: Nafarroako Jaialdietako egitarauaren barruan gaur, 22:00etan, Zelandiko zelaian Toure Kunda Senegaleko taldeak joko du. Bihar txanda Sally Nyolo kameruarrarena izanen da eta, etzi, Chab Samir marokor-rrak eskainiko du kontzertua.

Bertiz: Aubade seikoteak kontzertua emanen du, bihar, 12:30-etan eta 18:00etan jauregian.

Elizondo: Kultur Etxean Iruñeko gaiteroak eta Zangozako Saxofoi laukotea ariko dira datorren asteazkenean, abuztuak 13, 20:30-etan.

Arantza: Heldu den ostegunean, hilak 14, dantzaldia izanen da Alaitz eta Mainerrekin, gaueko 12:00etatik aitzina.

ZINEA

Atarrabia: Jerry Maguire pelikula eskainiko da datorren ostegunean, abuztuak 14, gaueko 22:00etan, Bakearen plazan.

Labiano: Dragonheart pelikula ikusteko aukera dago gaur, 21:30etan, herriko plazan.

Gabarderal: Herriz herri egitarauaren barruan Dragonheart filma eskainiko da bihar, larunbata, 21:30etan, frontoian.

Barañain: Independence Day pelikula ikusteko parada dago gaur, Lakuaren gunean, 22:00etan.

ANTZERKIA

Ororbía: Pinpilinpauxa antzerki taldeak *Por los caminos de nunca jamas* antzezlana eskainiko du bihar, 21:00etan, kiroldegian.

Biurrun: Teatro bajo la arena taldeak *El mundo subterráneo de Alicia* taularatuko du bihar, gaueko 21:00etan, frontoian.

Taxoare: Herriz herri ekitaldien barruan *Ekilicua* lana plazaratuko du Narrentrepe antzerki taldeak, etzi, gaueko 21:00etan.

ERAKUSKETAK

Elizondo: Heldu den abuztuaren 31a arte Tomas Sobrinoren oleoak eta akuarelak ikusteko aukera dago Jaime Urrutia kalean margolariak duen erakustaretoan. Erakusketa egunero zabaltzen da.

Zangoza: Pilar Compainen keramika lana ikusi nahi duenak adi eta azkar ibili beharko du datorren abuztuaren 12an, astelehena, itxiko baititu atek Kultur Etxean duen erakusketa.

nafarkronika

Fermin Erbiti

Abuztuko kronikak

Udako hilabeteetan komunikabideen edukina ohi baino arinagoa izaten da, telebistan izan ezik, pantaila tikian arinkeria eta ergelkeriaren urte osoko markak gaintzea ezinezkoa delakoz. Gainerakoetan, eta bereziki prentsa idatzian, aldaketa nabarmenak somatzen ditugu irakurtzen hasi orduko. Izan ere, kazetariok urtean zehar politikoen prentsaurreko aspergarrietan beraien aita-amak kakaztuko ditugu baina, egia aitortu behar da, korbata utzi eta bañadorea janzen dutelarik, umezurtz gelditzen gara orrialdea nola osatzen ez dakigula.

Antzeko zerbait gertatu zait niri ordenadorearen aitzinean jarri eta asteko kronika hau ehiten hasi eta berehala. Azken asteotako gaiaren bat har nezake (Blancoren hilketak, NUPeren euskararen normalizaziorako plana, Itoitz...) baina gaurkoan hobe izanen da horiek guztiak alde batera utzi eta gainerakoan antzera gai arinagoren bat aztertzea.

Azken egunetan Aznar eta haren andrea ikusi ditugu Oropesako hondartzako uretan sarturik. Badakir Corella ez dela Oropesa, baina etxe honetako argazkilari finen batek ahaleginak egin litzake diputazioburuari herriko piszinako uretan argazkia egiteko. Hori, dudarik gabe, abuztuko kronika egin behar dugunondako

lagungarri litzateke oso erraza baita aipatzea bañadorea luzeegia edo motzegia duela, igerian ez duela Tarzanen estiloa, uste baino argalago dagoela...

Nafar bat duela aste batzuk Menorcako hondartza batera joan eta han nor eta Urralburu ikusi zuen, etzanda, irrati tiki horietakoarekin, zigarroa eskuetan, lasai-lasai eguzkia hartzen. Argazkia egin eta argitaratu ere egin da baina bazter batean, argazko oin labur batez, tamaina tikian. Horiek dira, horiek, abuztuko argazki onak eta hobeak lirateke argazkiaz gain nafar hark elkarrizketa egin izan balio. Ez, noski, elkarrizketa serioa, arina baizik. Zuk Ana Obregonek bezala urtean sartzean telefono mugikorra eramaten al duzu?, Azken urteetan ez zaitugu Sanferminetako gauetan ikusi, zergatik, Egia al da oraindik ez zarela Iruñea eta Andoain arteko aurobidetik joan?...

Oso serioak (serioegiak garenez), guk ez dugu inoiz horrelakorik eginen. Politikoen oporraldiak sorturiko arazoak konpontzeko Euskalerriko festa, jai eta bestetako urteroko egitarau, iritzi eta argazkiak nahiago ditugu. Baina guk, abuztuko kronikak idatzi behar ditugunok, ezin dugu erran alaitasuna dela nagusi ez dakit zer herritan edo urtero bezala txikien eguna ospatu dela ez dakit nongo festetan. Gaixo gu.



asteko pertsonaiak



Antonio Weinrichter
Zine kritikaria

Antonio Weinrichter zine kritikaria Indiako zinearen modernitateaz eta berrikuntzaz mintzatu zen herenegun Iruñean Nafarroako Jaialdietan. Weinrichterek azpimarratu zuen Indiako zinearen inguruan egunotan hiriburuan egiten ari den zikloan ikusi den zinea ez dela Indian egiten denaren lekuko eta eredu azpimarratu zuen. TVEko "Dias de cine" programako erredaktore da, Madrilako Komunitateko Zine Eskolako irakaslea da eta hainbat liburu kaleratu ditu, besteak beste, *Zine amerikar berria*. Haren irudikoz zikloan erakutsi dena «autore zinea» da eta ez egun Indian gehienbat ikusten diren abentura film komertzialak. ■



Enrique Martin
Osasunako entrenatzailea

Enrique Martin Monrealek bide onetik darama Osasuna. Gorritxoaren entrenatzaileak joan den denboraldia amaitzeaz zegoela hartu zuen taldea eta geroztik ez du partidu bat bera ere galdu. Martin 1997-98 denboraldia prestatzen ari da eta aste honetan bertan Stoke City talde britaniarraren aurka irabazi du 3-0 aurrendenboraldiko bigarren partidua. Entrenatzaileak harrobia hartu du taldearen gidari eta emaitza ezin hobeak lortzen ari da. Jende gaztea baina ilusioarekin gu Martinek hamaikakoan. Dena den, urte askoz Osasunako jokalaririk izanaren ustez, eguneroko lanak eta partiduetako emaitza onak erabakiko dute denboraldian gorritxoaren etorkizuna. ■

ahaztu gabe!



PASTORALA

Otsagi: Pier Pol Bertzaitzek idatzitako Atharratzeko Jauregian pastorala antzertuko dute heldu den larunbatean, abuztuak 16, Otsagin. Emanaldia arratsaldeko 5:30etatik aitzina izanen da. Pastorala jadanik antzertua izan da bitan Atharratzen bertan eta orain Zaraitzuko herrira dator. Han taularatuko duten pastorearen mamia aspaldiko den kantu zuberotar batean oinarritzen da. *Ozaze Jaurgainian* edo *Atharratzeko Jauregian* izenburua duen kantua, Xarles Lukuze eta Atharratzeko baroia eta Maria Ozaze Jaurgaineko bere emazte gaztearen istoriotik sortua da. Kondaira, Henri IV. erregearen garaian kokatzen da, erlijio gergen artean, eta Frantziak eta Espainiak Nafarroako Erresuma zatikatu zuen unean. Garai hartako gertakariak Zuberoa hondatu zuten eta zuberotarren baitan utzitako oroitzapen franko gogoratzen ditu. Pastorealean 80 lagunek hartuko dute parte eta Zuberoko dantzariak ez ezik, Otsagikoak ere taula gainean ariko dira, hango dantzak aurkezteko. Xarles eta Maria pastora oinarritzen den bi pertsonai nagusiak zazpi urtez bizi izan ziren Otsagin eta horregatik gonbidatu dituzte dantzari nafarrak.

adi!

Euskalerrria Irratia FM 91,4

Egunero astelehenetik ostiralera, *Zokobetailu* goizeko 10.00etatik 12.00etara.

Xorroxin Irratia FM 107,5

Egunero 20.00etatik 22.00etara *Karakola segi hola* gazteen-dako saioa.

Aralar Irratia FM 106,2

Asteazken zehar 13.30etatik 14.00etara, bertako bizilagun eta pertsonaia ospetsuei elkarriketak.

Irati Irratia FMko 107.7n eta 103.8n

Ostiralero *Txirristi-Mirristi* haur-erentzako saioa 12.30etan.

Mezkiritz

Bost-Kirolak igandean hasiko dira

Aiestaran eta Ormaetxearen arteko norgehiagokarekin abiatuko da arratsaldeko 17:30etan

Mezkiritzeko Herriko Txoko elkarteak antolatuta, Bost-kiroleko XVI. ekitaldia etzi hasiko da. Txapelketa etzi abiatuko da Aiestaran eta Ormaetxeak arratsaldeko 17:30etan jokatu duten partiduarekin. Guztira bi taldetan banatuko diren bederatzi jokalarik hartuko dute parte eta finala irailaren 28an jokatu da.

Irene Arrizurieta / Iruñea

AZKEN hamasei urteotako ohiturari jarraituz, Mezkiritzeko Herriko Txoko elkarteak Bost-Kiroleko ekitaldi berri bat antolatu du. Nafarroan tradizio handiko pilota txapelketa da, eta pilotak eskaintzen dituen modalitateak ikusteko aukera eskaintzen duena. Fermin Dufur, Bost-Kirol txapelketaren antolatzaileetako baten arabera, «pilota bere osotasunean ikusteko aukera eskaintzen du txapelketak. Modalitate bakoitzean hoberenak ez diren pilotariak kantxaratuko badira ere, guztietan osoenak direnak ikusteko aukera izanen da, pilotaren bost frogetan hobekien aritzen denak irabaziko baitu».

1982an Lizarrako frontoian pilota afizionatu talde baten ekimenez abiatu zenetik, huts egin gabe ospatu da urtero txapelketa. Pilotari asko pasatu dira erabat errota dagoen txapelketatik, eta maila ere gero eta hobea dela



Xareaz gain pala-motzean, larru-paletan, goma-paletan eta esku huska ere jokatu beharko dute partehartzaileek.

ARTXIBOKOA

azpimarratu dute antolatzaileek. Aurtengo XVI. ekitaldian erabiliko den joko sistema eskailereana izanen da. Txapelketan jokatu duten bederatzi jokalariek bi taldetan banatuko dira. Lehenengoa: Larreak, Jaurenak, Ormaetxeak eta Aiestaranek osatuko dute, eta, bigarrena: Erburu Ilk, Erbitik, Fernautek, Ezkerrok eta Ciak. Jokalariek pala-motzean, larru-paletan, goma-paletan, xarean eta eskuz ari beharko dute euren indarrak neurtzen. Talde bakoitzeko garaileak datorren

irailaren 28an jokatu den finalera pasatuko dira XVI. ekitaldiko garaile nor izanen den erabakitzeko.

Txapelketako lehen partidua etzi jokatu dute Aiestaran eta Ormaetxeak arratsaldeko 17:30etatik aurrera. Beste partidua abuztuaren 17an jokatuko dira. Txapela lortzeko faboritoak joan den urteko txapelduna —Jose Javier Larrea— eta txapeldunordea —Erburu II— dira. Dena den, Pello Erbitik ere zeresana emanen du txapelketan. Pilotaria le-

isionatua egon zen joan den urtean, eta, hori dela eta, ezin izan zuen txapelketa jokatu. Aurten, berriz, gogobetez dator eta aurreko urteetako Bost-Kiroleko txapelketetan lortu dituen hiru txapele laugarrena gehitzeko gogoarekin. Hala ere, Erbitik ez du lan erraza izanen Larrea izanen duelako aurrez aurre. Larrea aurreko bi ekitaldietako garaile izan zen, eta berriro ere txapela bere etxera eramateko asmoarekin hurbilduko da Mezkiritzera. X

Baztan eta Bortziriak

Kultur eskaintza oparoa mendialdeko herrietan

■ Asteburuan aktuzio ugari izango dira Sunbilla, Orreaga, Lekunberri, Irunberri eta Irurtzunen

Erredakzioa / Iruñea

KULTUR 97 izeneko programa herriz herri dabil abuztuaren lehenaz geroztik. Gaur Iñaki Fresan baritonoak Erronkariko gazteluko ermitan abestuko du, Juan Antonio Alvarez Parejo piano jolearen laguntzat. Fresanek berriro kantatuko du etzi, arratsaldeko ordubatean, Orreagan.

Ortzadar fanfarrea, berriz, Irunberriko kaleetan barna ibiliko da bihar, arratsaldeko zazpi eta erdietatik aurrera. Gero herri kirol erakusketak izango da Irunberriko plazan. Erronkarin, eguerdiko hamabi eta erdietan eta arratsaldeko sei eta erdietan, Julian Gaiarren Fundazioak bere programa aurkeztuko du tenorearen museoan. Hori ere bihar izango da.

Lekunberriko Kultur Etxean gaur bertan hartuko dute Iruñeko gaiteroen eta Zangozako saxofoi laukotearen bisita. Irurtzongo kaleak Ardanbera fanfarreak alaituko ditu, bihar, arratsaldeko zazpi eta erdietatik aitzina. Ordu bete geroago, Lesakako Irain dantza taldea ariko da Irurtzongo plazan.

Igandean, Boskote Klasikoak bi kontzertu eskainiko ditu Orgiko hariztian. Lehendabizikoa eguerdiko hamabi eta erdietan izango da, eta arratsaldekoa seietan. Bertiz ingurrian ere eskaintza oparoa dute astebururako. Bihar Aubade seikotearen bi kontzertu egongo dira Bertizko Jaurregian. Sunbilla, arratsalde partean, kalez kale ibiliko dira Ataitz taldeko txistulariak, eta zortzi eta erdietan Berako Gure Txokoa dantza taldeak aktuatuko du. X



Ortzadar fanfarrea Irunberriko kaleetan barna ibiliko da bihar.

ARTXIBOKOA

Sunbilla

Aizkolari Txapelketako kanporaketa igandean

■ Hamaika aizkolarik hartuko dute parte

Erredakzioa / Doneztebe

ETZI Nafarroako bigarren mailako Aizkolari Txapelketako kanporaketa izango da Sunbilla, arratsaldeko 18:00etan. Kanporaketa 11 aizkolari ariko dira: Luis Maria Belarra (Doneztebe), Jesus Etxeberria (Labaien), Jose Ignazio Flores (Ziordia), Jaime Gorriti (Arakil-Uharte), Martin Jaunsaras (Almandoz), Manuel Kañamaren (Arostegi), Patxi Larretxea (Arraioz), Esteban Pikabea (Gerendian), Jose Luis Telletxea (Labaien), Juan Telletxea (Doneztebe) eta Daniel Vicente (Otsagi).

Manuel Gorriti eta Inazio Katarain aizkolariek huts egin dute aurten. Ez dute parte hartu txapelketan eta, ondorioz, hirugarren mailara jaitsiko dira.

Sunbillako kanporaketa aizkolari bakoitzak 54 ontzako bina enbor eta 60ko beste bat moztu beharko dituzte. Lana bukatzen duten aurreneko bost aizkolariek txapelketako finalean egongo dira. X

Barañain

Abian da berriro Infolan, gazteei lana bilatzen laguntzeko zerbitzua

Erredakzioa / Barañain

INFOLAN, Barañaingo gazteei lana bilatzen laguntzeko zerbitzua, abian da berriro. Zerbitzua ia ez eratu zuten eta harrera ona izan du gazteen artean. Martxan egon zen hiru hilabeteetan, ia zozko urritik abendura bitartean, 68 gazteri eman zien aholku. Zerbitzura jo zuten gazte gehienak lizentziatuak ziren, eta noizbait lan egindakoak.

Haien artean tailer bat antolatu zuten; hamabost gaztek hartu zuten parte bertan, eta haietatik hamabik lana aurkitu zuten. Hori dela eta, aurten zerbitzu bera eskaintzea erabaki du Barañaingo Udalak. Hala, informazioa eta prestakuntza ikastaroak eskainiko ditu.

INEMen datuen arabera, ekainaren 30ean 331 langabete gazte zeuden Barañainen, urtarrean baino 98 gutxiago. Haietatik 118 (%35,6) gizonetakoak dira, eta beste 213ak (%64,4) emakumeak. Gazteak herriko langabetuen %36 dira, guztira 907 langabetu daude eta Barañainen. X

Natura ikuskizun bilakatzen denean

Teknologia berria naturaren zerbitzura Otsagi, Erronkari eta Bertizko Naturaren Interpretazio Zentroetan

Urko Aristi / Iruñea

«OSO INTERESGARRIA, oso didaktikoa», diote behin eta berriz Maria Jesus eta Mari Karmenek, Erronkariko Naturaren Interpretaziorako Zentrotik ateratakoan. Bi emakume horiek valentziarrak dira, eta Erronkariko bailarara etorri dira oportetean. Zentro horretan ikusitakoak asko lagundu omen die bailarako hainbat txoko ezagutzeko orduan. Azken finean, gidari baten papera betetzen dute ordenagailu, diaporama, panelak eta zentro horietan aurkitzen diren material guztiek. Naturaren ezkutuko altzorak erakusteaz gain, altxor horiek zaindu eta gorde egin behar direla irakasten digun gidaria.

Zentro horien eskaintza, sinplea, baina era berean aberatsa da: natura. *Natura enbasatua* nahi izanez gero, baina berez liluragarria dena are liluragarriagoa eginez. Multimedia espektakulu bat da Nafarroako Gobernuaren zerbitzu honek eskaintzen diguna. Nafarroako zenbait xehetasun ematen badituzte ere, berehala lekuan lekuko ezaugarrien kontakizunari ekiten diote Naturaren Interpretaziorako Zentroek. Oporraldian egunero atek zabalik badituzte ere (astelehen goizetan izan ezik), neguan, asteburuetan bakarrik zabaltzen dituzte. Hori bai eskoletako ate-

Bertara hurbiltzen direnei ingurugiroa ezagutzera ematea eta haiengan kontserbazioaren aldeko jarrerak piztea dira Naturaren Interpretazio Zentroen helburuak. Nafarroan horrelako hiru zentro ditugu: Otsagin, Erronkarin eta Bertitzen. Hirurek egitura beretsua dute, baina bakoitzak bere zonaldeko ezaugarriak azpimarratzen ditu. Hiruretan, hori bai, diaporama, ordenagailu eta abarren bidez natura ikuskizun bilakatzen da.

raldietarako, alde aurretik abisatuz gero, zabalik izaten dira.

Naturaren Interpretaziorako Zentrootan, dena, edo gehiena behintzat, pantaila bidez ikusten dugu. Filme arraro bat bezalakoa dira etxe hauek. Hala, Erronkariko bailara eta bere ingurunea bihurtzen dira filme honen protagonista bakarrak Erronkariko zentroan. Ikus-entzunezko muntaia berezi baten protagonistak. Pelikula guztietan bezala, hemen ere pertsonaia gaiztoak eta onak izango dira. Jakina, pertsonaia ona ingurunea dugu; eta gaiztoa? Materialismoak eta auskalo zein barrabaskeriak bultzatuta, natura suntsitzen duen gizona behar bada?

Erronkariko zentroa • Erronkari erdi-erdian dagoen eraikuntzak hiru solairu ditu. Sarrerakoan, ia-ia informazio guztia panel informatiboen bidez eskaintzen zaio bisitariari. Baina gauzak aldatu egiten dira hegatziz beteriko eskailerak igotzen hasi orduko. Bigarren solairuan, informatika munduak hartzen dio lekuko kartoiari. Horrela, Nafar Piri-

noetako zenbait bitxikeria ezagutu ahal dira joku interaktibo baten bidez: paretan koadro ugari, eta koadro bakoitzean galdera bat, balizko hiru erantzun lagundurik. Jokalari bakoitzak hiru botoi ditu, bat erantzun bakoitzeko. Botoi egokiari lehengo sakatzen diotak, hark eskuratzen du galdera horri dagokion puntua. Eta noski, punturik gehien duenak irabazten du jokaldia. Jokutxo honekin barre gustura egin ondoren, hartzen bizimodua eta ezaugarriak ezagutzeko garaia iristen da. Gaur egun harrigarria gertatzen zaigun arren, noiz edo noiz hartza bat azaltzen omen da Erronkarira, Aragoi aldetik datorrena. Garai batean, ordea, hogeita zortzi hartza inguru zenbaitu izan zirela diote. Hartzari eskainitako txokoaren alboan dago zentro honetako *ikusizun izarra*, bisitarien artean arrakasta gehien duen ikuskizuna, alegia: artzaitxoaren halorama. Behealdean, Erronkari haraneko maketa bat. Gaietan pantaila bat. Eta bi horien artean, saltoka, narratzailer lanak betetzen dituen artzai-

txoa. Artzain bitxia, inondik ere, ez baita panpin bat, monitore baten islaren bitartez sorturiko efektu harrigarri bat baino.

Azkenik, hirugarren solairuan, ordurarte ikusitako guztia laburbiltzen duen ordu laurdeneko diaporama izaten da euskaraz eta gaztelaniaz. Hori da mendia- ren gailurra. Hor bukatzen da Erronkariko ingurunean eginiko bidaia laburra baina sakona eta interesgarria. Beharbada, horregatik hurbiltzen da hainbeste jende Naturaren Interpretaziorako Zentro honetara. 14993 lagun izan ziren iaz bisitan. Hori bai, bertako langile batek, Arantxa Martinezek esan digunez, «gero eta jende gutxiago etortzen da. Alde batetik turismoak orokorrean behera egin duelako, eta, bestetik, urte honen hasieratik sarrera berrehun pezeta kobratzen dutelako, eta gezurra badi-rudi ere, asko dira berrogei duroak ez ordaintzeagatik sartu eta berehala ateratzen direnak». Hori bai, etorri, ordaindu eta sartzen direnak, bazter guztietakoak izaten dira, nahiz eta gehienak Nafarroa eta Euskal Autonomi-

Elkartetik etorri. Aurten, bitxikeria moduan, Gaztela-Mantxako bisitari asko izan dituzte.

Otsagiko zentroa • Bisitari asko izaten dira Otsagiko zentroraino hurbiltzen direnak ere. Erronkariko serioagoa da, baina Zaraitzuko bailaraz dihardun hau egokiagoa da etxeko txikieneztat. Hemen ere berrogei duroek eragindako beherakada nabaritu dute. Dena den, badira ordaindu beharrik ez dutenak ere: jubilatua, adin gutxiak... (Erronkarin ere ez zaie kobratzen).

Nafarroako Pirineoen maketa erraldoi bat da Otsagiko zentroraino hurbiltzen direnek ikusten duten lehen gauza. Bertan, nahi duzun zonaldearen botoia sakatu eta zonalde hori argiztatu egiten da maketan, eta baita haren gaineko panelean ere. Maketa horren ondoan, ordenagailu berritsu bat dago zuk nahi duzunari buruz hitz egiteko prest: geologia, historia, basapiztiak...

Bigarren solairuan, erdi-erdian, bisitari guztien buru gainean, dena kontrolatzen arituko balitz bezala, ugatza dago. Ugatza animalien hezurrez elikatzen den hegatzia da eta haien barrukoa jan nahi badu, goi-goitik botatzen du hezurra, hautsi eta barrukoa atera ahal izateko. Bertako espezie hau, zoritxarrez, beste askoren antzera, desager-tzeaz dago, eta horregatik azke-




Udan batez ere, jende asko hurbiltzen da zentro hauetara.

Naturaren Interpretaziorako Zentroak

nekoek bizirik dirauten bitartean, Otsagikoek bere bizi baldintzen eta ezaugarrien berri eman nahi digute. Bestalde, basoak urtean zehar izaten dituen aurpegi desberdinak erakusten zaizkigu solairu berean. Lau urtaro, lau aurpegi. Eta hori argi eta garbi ikusteko, pago bat, lau zatitan banaturik. Urtaro bakoitzean, berriz, hainbat joku. Batean, lurrean dauden hatzak jarraituz, bukaeran botoi bat dugu. Botoi hori sakatu, eta hatz horiek zein animalia diren, horren argazki bat ateratzen zaigu.

Beste batean, bi panel ditugu. Alde batean ostoa eta bestean enborrak, eta bakoitza bere bikoitearekin parekatuz gero, biak argiztatu egiten dira. Animalia eta landareek neguaz babesteko egiten dutena erakusten digun jokurik ere bada, eta baita larre arrunt bat baso bilakatu arteko urrats desberdinen berri ematen duenik ere. «Zenbait ume ikaratu ere egiten dira, bat-batean animalia baten argazkia pizten denean», dio Ana Sagardoi monitorea. Ez da gutxiagorako, basoan zoazela agertu balitzazu bezalakoa izan daiteke hartutako sustoa.



Ez da batere astuna egiten informazio jarri amalgabea.

LUIS AZANZA

Naturaren

Interpretaziorako Zentro hauetan, dena, edo gehiena behintzat, pantaila bidez ikusten dugu. Filme arraro baten modukoak dira etxe hauek

Azken solairuan, Zaraitzu bailaran aspaldian erabiltzen ziren erreminten erakusketarekin batera, diaporama ikusgarri bat eskaintzeko areto aproposa dute Otsagin. Bertako aukiek behin eta berriz entzun dute zein miresgarria eta erakargarria den Iratiko oihana. Eta behin eta berriz entzungo zituzten irudi ikusgarri horiek jendearengan sortutako harridurazko irrintziak, hainbat eta hainbat bisitariren eserleku izan baitira.

Bertizko zentroa • Hirugarren Naturaren Interpretaziorako Zentroa Bertizkoa da. Bertizko zentroak inguruan dituen lorategi ederrak ikusita, ia pentsa daiteke barrukoa ere ez dela makala izango. Bertizko natur parkearen erdi-erdian dago Baztango bailara gaitzat duen zentro hau. Bertitzen, gehienbat landare, geologia eta uraz arduratzen dira. Horrela, bigarren solairuan urari eskaintako txoko bat bada: errekatxoak, euria, erreka bazterretako zuhaitzak eta ur azpiko animaliatxoak. Lur azpian bizi direnak ere ikus ditzazkegu lur gainean ibiltzen garenok. Barruan eguzkiak gehiegi babesten ez bagaituzte ere, kanpoan diren zuhaitz mota guztiak ikus ditzazkegu jauregi zaharrean. Eta haien ostoen artean animaliatxoek uzten dituzten aztarna mota guztiak ere bai: bai hatzak, baita kakatxoak ere.



Otsagiko zentroko langileak: Maria Goienetxe eta Ana Sagardoi.

LUIS AZANZA



Erronkariko zentroko langileak: Arantxa Martinez eta Karmen Artoleta.

LUIS AZANZA

Eta, azkenik, bisitaldiarekin amaitzeko, goiko solairuan, multimedia ikuskizun bat, hau ere ahoa zabalik uzteko modukoa:

parkearen sorrera, historia, klima, paisaiak, protagonistak, urtaroen arteko desberdintasuna, gaua eta eguna...

Laugarren Naturaren Interpretaziorako Zentro bat irekitzeko asmoa omen du Nafarroako Gobernuak. Irunberrin egin nahi

dute. Bien bitartean, Erronkarin, Otsagin eta Bertitzen, natura ikuskizun bilakatzen jarraituko dute. Merez du.

Gobernuarekin haserre

URTE honen hasieran, aurrekoei kontratua amaitu zitzaie eta, Nafarroako Gobernuak konkurtso berri bat antolatu zuen Otsagiko eta Erronkariko Naturaren Interpretaziorako Zentroen kudeaketa noren eskutetan utzi erabakitzeko. Aurkeztutako asmo guztietatik, azkenean Iruñeko Ostadar enpresaren eskutetan utzi zuen bi zentro hauen gestioa. Ordurarte bi herrietako gazteek zuten ardura guztia eta kanpoko enpresa

bati eman izana ez zuen begi onez ikusi bertako jendeak. Zaraitzu eta Erronkariko udaletxeak haserretu ere egin ziren. Zentro horiek sortu zirenean, prezio sinboliko batean saldu zizkioten Gobernuari bi etxeak, bertako gazteentzako lanpostu berrien sorrerak merezi zuelakoan, orain berriz ez dute uste Nafarroako Gobernuak zuzen jokatu duenik: «Zaraitzuarren kontra doan edozein neurriren kontra gaude gu», esan digute

Zaraitzuko udaletxetik. Erronkarikoak ere ez du uste erabaki hori oso zentuzkoa denik. Nafarroako Gobernuak, ostera, bertakotasuna baino garrantzitsuagoak diren beste faktore ugari badirela uste du. Ostadar enpresak ez zuen espero horrelako hauts pila harrotuko zenik. «Guk gure plangintza aurkeztu genuen, beste lehiaketa askotara aurkeztu dugun modu berean. Gainera, guk ez dugu gatazka honetan inongo

erririk. Hor Gobernua eta bertakoen artean konpundu behar dira, eta hurrengorako oinarriak ongi argitu», dio Alberto Jimenezek, Ostadarreko kideetako batek. Hasierako iskanbilien ondoren, Ostadar enpresak berriro lehengo langileak azpikontratatzeko erabaki zuen, baina Otsagiko Ana Sagardoik dioenez, «egoera ja ez da berdina, orain pastel bera lagun gehiagoren artean banatu behar dugu, eta ez dugu ulertzen zergatik:

gu geundenean, ez zen inor ezertaz kezatu». Dena den, lehengo langileetako batzuk alde egitea erabaki zuten. «Lehen bai, baina orain ez da errentagarria hemen aritzea», aitortzen du Erronkariko Karmen Artoletak. Afera honen beste kapitulu bat abenduan idatziko da, orduan bukatzen baita Ostadarri kontratua, eta orduan ikusiko da noren eskutan erortzen den bi Naturaren Interpretaziorako Zentro hauen zuzendaritza. ✕

Xanti Begiristain

Pentsioak eta presioak

■ Goiburuak dioen bezalaxe, gaur bi gai hartu ditut pixka batez iruzkintzeko, bata jubilazio pentsioena eta bestea, bukaerarik ez duen aspaldiko preso politikoen sakabanaketarena.

Lehendabiziko gaia harturik azpimarratu nahi dut egite bat hasteko. Konturatu al zarete eta gogoratzen al duzue zer den politikariek, gobernuburuak, lehendakariak, ministroek eta abar egiten duten lehendabiziko guzterariko bat boterera iritsi eta agintzen hasten direnean? Ba, ez bazarete oso ongi oroitzen ere, esanen dizuet oroimena pixka bat freskatzeko, izan ere, gorago aipaturiko politikari horiek guztiek normalean egiten duten lehenengo gauza zera baita, elkartu, bilera antolatu eta serioski eztabaidatu zenbat diru igo norberaren soldatari.

Jakina, lehenagotik ere ez ziren batere lansari txikiak, baina nonbait aurrekoarekin konformatu ez eta gehiago nahi gizarajo eta gaixoek.

Kasu honetan ez ohi dute aipatzen zenbat denboratan kotizatu behar duten Gizarte Aseguran-

zaborrekin; hortaz, lansari eskas eta inseguruekin.

Baina honetaz guztiaz gain, gainera, denbora gutxi barru, 35 urtez aritu beharko dugu lanean, 65 urterekin jubilatu eta %50 jasotzeko, beste perla askoren artean.

Argi dago ba, aldeak eta diferentziak gero eta handiagoak direla pertsona txiro eta boteretsuen artean. Eta zer esango genuke hasiko bagina pittin bat aztertzen Errege-Erregina, Printzea, Infantak eta gainerako jendilajearen soldatak eta erretiroak? Nik behintzat oso garbi daukat eta horrelaxe adieraziko dizuet hitz gutxitan, hara, nire aburuz pertsona edo kargu horiek guztiak, batere beharrezkoak ez diren gizarte honen bizkarroi handiak baino ez dira.

Eta bukatzen joateko, gogoeta txiki batzuk egin nahi ditut euskal preso politikoen sakabanaketa eta egoera orokorrari buruz.

Azken aste hauetan gauza asko eta latzak gertatu dira Euskal Herrian (Ortega Lara eta Del-

Klasiko bitxi • arront klasiko

Joxemiel Bidador

Alejandro Tapia Perurena olerkari iruindarraz

■ Ez da lehendabiziko aldia Caja de Ahorros de Navarra delakoaren gerizapean argitara emaniko *Nafarroako Entziklopedia Itzela* bilduma aipagai dugula, eta egia esatearren, komunzki ez da euskaldunondako dituen berri apartak gailentzeko izan, ez eta hurrik eman ere. Euskararekin lotura duten sarrerak nabaslegi baheturik datozkigula hatzmateko ez da hagitz azkarra izan behar, eta hori ere orrialdeak tresondatzeraino iritsi direnekin, izan ere, aunitz eta aunitz agertu ere ez baitagertza —adibide bakarra aipatzearen, hortxe daukagu ahantz bide malkar gorrian *Otsagiko Garrantatarrak*, aita eta semea—. Arazoa, ordea, ez da gure herriko bene benetako eta lehendabiziko kultura gezurtatu, izkutatu eta isilarazi digutenena bakarrik, eta hala izanen balitz bederen, gauzak bestelakoak lirakeke. Arazoa, eta larriena dena, guk geuk geure aldetik aintzinarazten ditugun berri iturrietan datza engoitik, geroago eta sakonago, geroago eta zuzentzen nekezago, izan ere, Otsagiko idazle albaitariek erdal hiztegieta sartzeari haizu ez badute, oixtian etxe honek banatu entziklopedia zortziduneari ere, bere 3.333 orrialdetan, ez zen idazle umil hauez errukitu, ez eta beste zenbaitez ere, eta naski, honek min digu, bada, haien erru bakarra, agidanez, nafarrak izatea dateke soilik. Nahiz abizenen aldetik aisa iger litekeen ekialdeko ibaxetako zein Leitzaledeko askaziak, Alejandro Tapia Perurenaren errua iruinxemea izatea genuen. Horregatik bada sarrera exkaxa erdietsi ahal izan zuen nafar banketxearen aipatu segida editorialean —X. alekia, 436 orrialdean—, eta, horregatik ere, agian, ezin izan zuen Harluxet fundazioaren saio orohartzaillean tailis mendrenik ere ireki. Horixe da gure mixerial!

Tapiatarrek mende akaberako Iruñe ertsi hartan hain ugariak ziren denda horietako batean zuten bizibidea, ezko eta txokolate saltzaile, egun Ebano boutique esotikoak bere jantzi koloretsuak pausatzeko duen egoitza berean. Alejandro 1899.eko abuztuaren 11an jaio zen, eta següroenik, premu ez izatearen kariaz, bost haurridetan hirugarrena baitzen, dendan aritu behar izan ez zuelako edo, ikasteari ekin zion luzaro eta guritsu, hiriburu nafarretik Europarantz, Parisen hiru urte eta Alemanian beste bost higituz. Etxera itzuli zenean, lehenegusia zuen lundain irina merkatariaeren kontuak eraman zituen irakaskuntzan erabatez sartu aurretik. Zekizkien hizkuntzei eskerrak ez omen zituen arazo haundiegialk lana egiteko, eta denbora gehiena Aldapa karrikako bere etxean eman arren, Lekarozko ikastetxean ere euskara irakasle gisa ihardun zuen bulta batez.

Alejandro Tapiaren idazkigintza *Euskal Esnalea* izparringiren orriotan argitara zen estrainezko 1925.ean. *Zoruna* eta *Itundasuna*, Parisetik igorriak diren maitasunezko olerki pareta dugu, Shelley poemagile erromantiko ingelesaren bertsoak goiburu dituztelarik. Geurtz ere Parisetik bidalduriko *Agur* eta *Gallurrarantz* poemak azaldu ziren Donostiako aldizkari berean. 1927.ean herriz *Miren Josune* olerki luzanga agertarazi zuen beste bidaltoki berri batetik baina, izan ere, urte hartako Bilbon baikenuen idazle iruindarra. Tapia Perurenaren lana ez zatekeen oharkabean pasatuko, eta gerratearen aitzineko urteetan burutu ziren Oleriti Egunetan parte hartu zutenen artean zegokeen. Ezagun da ospatu zazpletarik bost ekitaldien lanak bakarrik argitara eman ziren *Eusko Olerkiak* izenpean, Aitzolek apallaturik eta Gipuzkoako Aldundiaren laguntzaz, Errenterian, Tolosan, Hernanin, Urretxun eta Zarautzen aurkezturikoak alegia. Argitalpen hauetan ere Tapiaren olerkiak irakurgai ditugu, 1930., 1931., 1932. eta 1933.eko alekietan.

Alejandro Tapiaren ageriko bidaldi poetikoa *Yakintza* aldizkarian ahiu zitzaigun, guda aurretiko 1933-1935 hirurteko artean, eta Oleriti Egunetatik ezaguna zukeen Aitzolen eskutik. *Oreñ zuria*, *Lore Igarrak*, *Biotzean min dut*, *Urretxindorrek*, *Lore bikaña*, *Baztango mendiak*, *Izanen aitz nerea*, *Itundasun*, *Erregeak digaroz*, *Neskato utzia*, *Maitasun atsegina*, *Sagardi loretsuak* eta *Lore añaño zera* dira hartan agertarazi zituen olerkiak. Tapiak erabili zituen inspirazio iturrien artean, Lizardi legoke, geure ustetan, eta zenbait bertso lerroetan eragina sobera argia litzateke. Lizardi zendu zenean, *Biotzean min dut* ondu zuen bere omenez, Zarauzkoari zion berigunea zein maisugoa leialki aitortuz. *Sagardi loretsuak* Tübingenen 1933.eko lorailan zegoela sinatu zuen, eta Tübingengoa zen Ludwig Uhland olerkariaren idazkiak zituen gustokoak, baita itzulgai ere, Anguru Irigaraiak jaso zuen gisaz. Idazle germaniarren artean ere Heinrich Heine erromantikoa, Friedrich von Schiller edota Goethe handia zituen atsegingarri. Jon Kortazarrek XX. mendeko euskal literaturaz tajutu ikerketa jada klasikoan, gerra aurreko urteetan euskal poesigintzaren barruan gure Tapia kokatzerakoan zera zioen: «Una corriente más objetivista y costumbrista guió la producción de Tapia-Perurena». Honakoa zalantzatan jartzeke, Tapiaren olerkietan nabariagie agitzen den hel ezineko maitasun hitsa litzateke bere ezaugarriarik aipagarrienetakoak: «Lore añaño zera / Lirain eder garbi / So ta ituna gogoan / Sartzen zait emeki / Nerea iñoiz izanen / ez zeran neska apain / Zai bezaitza Urtzik orren / Garbi eder lirain».

36.eko gudaldiak gure gizona hil zuen kulturalki. Gerrate aurretik harremanetan izan zen Iruñaldeko euskaltzaleekin, Euskararen Adiskideak taldekidea zatekeen, eta *Euskara* aldizkarian behiala Jose Maria Satrustegik Tapia beraren alargunarengandik jaso bezala, Korpus Lakidain orriotarrarengandik hots, Jose Agerre Santesteban eta Leitzaledeko idazkaria izandako Jose Perurena lehenegusia lagun minak bazituen. Nahiz Vida Vasca aldizkarian bi ekarpen bakanak eskeini zituzten, 1956. eta 1958. urteetan, argi aski esan daiteke gure gizonaren ibilbide literarioa 36.eko basakeri erdalzaleak eten zuela betiko. Harrez geroztik isiltasunik ozenenean iraun zuen 1957.eko maiatzaren 21ean zendu arteraino. Hil ostean, Satrustegik idoro eta ezagutarazi Kattalin umezurta antzertilana irakurri ahal izan genuen Euskaltzaindiaren paperean, eta ziur gaude ezezagun zaizkigun lanak ugari direla oraindik ere. ■



Pentsio sistema berria aste honetan jarri da abian.

XOUSA SIMAL

tzan, gero bizitza osoan kobratzeko tokatzen zaiena, izan duten arduraren aritzeagatik.

Ezagun batek esan ohi zuen bezala, zera gertatzen da sasi demokrata hauen artean, «karguak niretzat eta kargak hiretzat». Gainera gogoan izan jasotzen dituzten soldatak ez direla txorikaka izaten, eta gero aldiz, betiko geratzen zaizkie egundoko pentsioak, oker ez banago. Langile arruntentzat, ordea, ikus dezagun nola dagoen egoera. Hasteko eta behin, pertsona asko eta asko lan-gabezia dago, ez dagoelako lan banaketa egokirik.

Lan egiten dutenen artean, jende ugari aritzen da behin-behineko lanpostuetan eta kontratu

claux-ren bahiketen bukaera, M.A. Blancoren hilketa, Hernandoren urkaketa, gatazkak eta abar). Ez du esanen behin bat gehiagotan ETAK eta Ezker Abertzaleak hausnarketa egin beharko luketela, zere eta dagoeneko makina bat jende esan baitu. Baina bai esango dut aldiz, hau jende gutxiagok adierazten duela, ea zeren zain dauden Euskal Herriko eta Espainiako gobernariak eta agintedunak gizartearen ahotsa entzuteko. Orain ez dago bahiturik, bera, ezta txantaitarik ere. Eta belego ere, noiz txukunduko ote dute beren burua beraien idatzitako legeak beteaz? Alderantziz. Presoen egoerak okerrera egin omen du. Ederki gaude ba! ■

Mendia, hondartza ala tailerrak?

Iruñeko Udalak udarako euskarazko kultur ikastaroak antolatu ditu aurten lehendabizikoz

Urtero ikasturtean gozagai izaten diren Iruñeko Udalaren euskarazko sormen tailerrak, aurten udan ere antolatu dituzte. Lehenengo aldiz abuztuan eta irailean hiru tailer eskainiko ditu Euskara Zerbitzuak: Animazioa eta Multimedia, Euskarazko Ahozko eta Idatzizko Adierazpena eta Herri Dantzak. Izena emateko epea hilaren 12an burutuko da.

Juan Kruz Lakasta / Iruñea


UDARAKO planak egiteko orduan «mendia ala hondartza?» izaten da galdera tipikoa. Aurten, Iruñeko euskaldunek ohiko galdera horri hirugarren osagarria gehitu ahal izanen diote; izan ere, Iruñeko Udaleko Euskara Zerbitzuak euskarazko hiru tailer antolatu ditu aurtengo udarako. Horrenbestez, aurten «mendia, hondartza ala tailerrak?» izanen da galdera.

Galderari «tailerrak» erantzuten diotenen abuztuaren 12ra arte dute denbora Udaleko Kultur Aferen Alorrean (Descalzos, 12) izena emateko. Tailerretan parte hartu ahal izateko hiru baldintza besterik ez dituzte bete behar: euskaldunak izatea, 14 urte baino gehiago edukitzea eta matrikula ordaintzeko behar bezainbeste sos edukitzea.

Iñaki Azkona Udaleko Euskara Zerbitzuko buruak hiru baldintza horiei buruzko zehaztasunak eman zituen. Lehenik eta behin azaldu zuen ikastaroak mota guztietako euskaldunentzat aproposak direla: «Dakitenentzat praktikatzeara izan dezaten, eta oraindik ikasten ari direnentzat maila hobe dezaten; finean, guztiek euskaraz aritzeko ohiturak sortzeko aukera izan dezaten balio dute». Halaber, adin muga sendoegia ez dela argitu zuen. «Hamahiru urteko norbait etortzen bada ez diogu ezetz esango». Azkenik, matrikulak zenbat balio duen esan zuen, hain zuzen ere 2.000 pezeta (80 libera) Dantza eta Adierazpen ikastaroetan, eta 2.500 Animazio ikastaroan.

Azkonaren arabera, euskaraz aritzeko ohiturak eta sareak sortzea da udako ikastaroon xede nagusia, bai eta ikasturtean egiten diren eta haien aurrekari zuzena diren sormen tailerrena ere. «Udako ikastaroak antolatuz lortu nahi dugun helburua da udan ikasturtean egiten ditugun sormen tailerren espirituari eustea, udan gertatzen zen etena gerta ez dadin antolatu ditugu», azaldu zuen euskara teknikariak.

Zortzi urteko historia • Euskara Zerbitzua duela zortzi urte, 1989/90 ikasturtean hasi zen sormen tailerrak antolatzen. «Euskaldunak elkartzeko guneak sortu nahi genituen, eta



1989ko lehen tailerrak: argazkigintzako eta komikigintzako ikasleak.

ARTXIBOKOA

bururatu zitzaigun lehendabiziko gauza tailerrak sortzea izan zen». Hasieran, gazteei zuzendutako tailerrak antolatu zituzten. «Hamalau urte baino gehiago eta 20 baino gutxiago zizutenentzat egin genituen, eta komikiak eta antzeko alorrak jorratu genituen». Alta, gauzak ez ziren ongi atera. «Antza denez, gurasoek matrikulatzen zituzten, eta gero haiek berehala ikastaroetara joateari uzten zioten».

Porrot hori dela kausa, eta Maribel Beriain garai hartako kultur zinegotziak zenbait oztopo jarri zituela-eta, nekeza izan zen tailerrak berriro ere martxan jar-

tzea. Nolanahi ere, 1991/92an berriro ere antolatu zituzten. Adin muga ireki zuten, eta, ordutik aurrera, arestian aipatu bezala 14 urte baino gehiago edukitzea, euskalduna izatea eta matrikula ordaintzea izan dira bete beharreko baldintza bako-rrak. Hiru ardatz horien inguruan tailerrek arrakasta handia- goa lortu zuten.

Gaur egun tailerrak «erabat sendotuta daude», Azkonaren iritziz. Datuei begiratuz gero, ez dirudi oker dabilenik: 91/92 ikasturtean 62 lagunek parte hartu zuten ikastaroetan, eta, azken ikasturtean, 96/97, parte-

hartzaileak 207 izan ziren. Berrehun lagun horiek 17 tailerretan aritu ahal izan zuten. Azken sormen tailer horien artean *aerobic* ikastaroak lortu zuen arrakastarik handiena 32 parte-hartzaileekin. Argazkigintza ikastaroan aritu ziren 25 lagun, herri dantzetakoan beste 25, sukaldaritzan 19, Yogan beste 19... Gainera, inkestak egiten dituzte partehartzaileen artean, eta kritika zehatz batzuk alde batera utzita, oro har tailerretan parte hartzen dutenak pozik daude.

Dena dela, Azkonaren aburuz, ikastaroek alor zabal bat uzten

dute lantzeke. «Hasiara batean bertsoak, literatura eta antzeko gai kulturalak landu genituen, baina garai hartako zinegotziarekin, Beriainekin arazoak izan genituen. Esan ziguten horrelako ikastaroak UEUK edo beste norbaitek antolatu behar zituela, baina ez guk. Hori dela kausa, beste mota bateko ikastaroen alde egin genuen apostu. Nire ustez, norbaitek bete beharko luke esparru hori. IPESek horretan lan egiten du, baina ez da behar bezain ongi ateratzen. Akaso Euskal Kultur Erakunde- ren bat sortu beharko litzateke hori egiteko».

Zehaztasunak

PRINTZIPIOZ, «mendia, hondartza ala tailerrak?» galderari erantzutea erraza da. Aski da gustukoa duzun aukera hautatzea, eta kitto. Bada, baina, erabaki bat hartu aurretik aukera guztiak ongi aztertu nahi izaten dituen jendea, «mendira bai, baina nora?», «hondartzara bai, baina zein hondartza tara?» eta «ikastaroak bai, baina zein ikastarotara?» bezalako galderak egiten dituen. Horietako bat baldin bazara, hona hemen hiru ikastaroei buruzko informazio zehatza.

Animazio eta multimedia ikastaroa abuztuaren 18tik 29ra izanen da. Saioak egunero izanen dira, goizeko 9:30etatik eguerdiko 13:00ra Arte eta Lanbide Eskolan. Irakaslea Tomas Astiz izanen da. «Gaur egun, ordenagailua gora eta behera dabilen honetan, ordenagailuari erabilpen jakin bat emango diogu, irudiak sortzeko erabiliko dugu», azaldu zuen Astizek. Irudiak sortzeko prozesua zein den aztertuko dute: irudiak ordenagailuan nola sartzen diren,

nola lantzen diren eta zer egin daitekeen haiekin. «Batez ere ikastaro praktikoa izanen da. Irudiek in- zertu egiten, animazioa egiten saiatuko gara», laburbildu zuen artista iruindarrak.

Ahozko eta Idatzizko Adierazpen ikastaroa abuztuaren 18tik 28ra eginen dute. Astean lau saio egiten dituzte, 9:30etatik 13:00ra eta Kultur Aferen Alorrean.

Bittorio Lizarraga ariko da irakasle lanetan. Haren hitzetan, ikastaroaren xedea izanen da «gehien-

bat ahozko adierazpenean dauden ustezko zenbait arau, hitzen ordenari dagokionez, uste baino malguagoak direla ikustea, galdegaia eta abar». Ikastaroa batez ere praktikoa izanen da, Lizarragak espero du partehartzaileen adierazpena abar- rasteke baliogarria izatea.

Azkenik, herri dantzen inguruko ikastaroak abuztuaren 18tik irailaren 12ra arte iraunen du. Saloak astelehenetan eta ostegunetan egiten dituzte, 18:00etatik 20:00eta- ra eta Gaztedi etxean.

Enrique Dominguez izanen da irakaslea. Dominguez arabera, «ikastaroa egokia izanen da bai herri dantza bakar bat ere ez dakitenentzako, bai eta batzuk jakinda, praktikatu eta gehiago ikasi nahi dituztenentzako ere». Ikastaroan Nafarroa Behereko zein Nafarroa Garaiko dantzak ikasiko dituzte, hain zuzen ere Baztango Zortzikoa, Bera- ko Makildantza, Imozko Eskudantza, Zangozako Jota, Ainaume Mutildantza, Azkoindar Jauzia eta Larraindantza. X

◆ Inazio Perurena ◆ Ikaslea eta harrijasotzailea

«Harriena baino gogorragoa da eskola»

H amairu urterekin, aitaren urratsen atzetik dabil Inazio Perurena. Neguan ikasle, erakustaldietarako deitzen diotenean harrijasotzaile eta ahal duenean etxeko txekorrak hazten, mutikoa ez da arnasa hartzeko ere gelditzen.

Ana Unanue / Leitza

LEITZAKO JAIETARAKO lau egun eskas falta zirela, ederki kostatuta Inazio etxean harriapatzea. Presaka erantzun zituen galderak, siloa egitera joan behar zuen eta elkarrizketa bukatu bezain laister. Indarra ezezki, nerbioa ere badu harrijasotzaile gazteak.

■ Noiz eta nola hasi zinen harriekin?

Nire anaia txikia jaio zenean, nik inbidia bezala nuen eta oso gaizki pasatu nuen. Hiru urte nituen, lau egiteko. Aita konturatu zen, eta orduan hasi nintzen, bost urterekin, harriak goratzen. Eta orain arte.

■ Etxetik kanpo noiz aritu zinen lehendabiziko aldiz?

Bost urterekin joan nintzen erakustaldia egitera, harriak jarri zituzten, baina lotsatu eta ez nuen ezer egin. Hurrengo urtean joan nintzen leku berera, eta igual-igual, etxera berriz. Eta hirugarrenean aitak esan zidan, jaso ezazu, bestela alferrik etorri gara berriz. Lotsatuta, baina egin nuen.

■ Harrijasotzaile profesionala izango zara?

Nik nahiko nuke. Jende askok galdetzen dit ea ailegatu naizen aitaren kargetara, eta nik beti esaten diet goratzen dudarekin konformatzen naizela, 200 kilo edo. Orain goratzen ditut 100 kilokoak, eta Leitzako festetarako prestatu didate 106 kilokoak.

■ Ez dizu beldurrik ematen hain gazte hasi izanak? Ez dizu ondorio txarrik ekarriko gero?

Batzuetan gero pintxatu egiten da, baina ongi lotuz gero eta ez dut uste. Garai batean goratzen zituzten harriak gerrikorik gabe, presaka; aurrea aizkoran egin eta gero harriak, eta horrela ibilita bai, gerriko minak izaten zituzten. Ongi prestatu behar da.

■ Aitak aholkurik ematen dizu?

Bai, baina batzuetan ez ditut kontuan hartzen.

■ Zer du Leitzak sona handiko hainbeste harrijasotzaile emateko?

Ez dakit, igual izan da lekua, harri asko dagoela, baina ez dakit. Hiru gaude: Saralegi, aita eta neu. Beno, ni oraindik... Lehengoan esan zuen aitak oraindik umea naizela.

■ Eta zuk ere hala ikusten duzu zure burua?

Bai, 13 urterekin oraindik bai.

■ Zer da gogorragoa: harriak goratzea, baserriko lana ala eskolan ikastea?

Eskolan ikastea. Uff! Zaila da.

■ Ez zara ikasle ona?

Aurreneko trimestrean bost suspentso, hirugarrenean bat, eta bigarrenean ere bat. Eta orduan aprobata nuen, eta ongi, bestela... Nire arrebak nota onak ateratzen ditu; nik ez dut antzik.

■ Orduan, gusturago zabilta baserrian.

Bai. 250 bat txekor dauzkagu. Osabak, aitak eta hirurok hazten ditugu. Egin dugu siloa, eta orain joan behar dugu saio bat botatzera.

■ Hainbeste lan egiteko ongi jan beharko duzu. Zenbat txuleta jaten dituzu astean?


Egun guztia jaten egoten naiz. Igual granjan egoten naiz, gero erakustaldira, eta etxera etortzerako izebak ematen dit txuleta. Aitak igual xerra, eta nik txuleta.

■ Goenkale zalea izango zara, ezta?

Bai. Batzuetan negarrez hasten gara, eta baaa... (esku artean ezkututzen du aurpegia, lotsatuta bezala).

■ Aitak badu Imanol pertsonaia- ren antzik?

Etxean? Okerragoa da! Telebisiolan bronkak botatzen baditu, hemen gehiago. Atzo ikusi egin behar zen!



Perurena gaztea joan den asteazkenean, etxeko sotoan.

JOXE LACALLE

■ Eta zu Ander semearen tanke- rako zara?

Ez. Haiek ongi hitz egiten dute, eta guk gure herriko eran, oso diferente.

■ Zuen arteko aita-seme harre- mana ere diferentea da?

Ez, orain antza pixka bat hartzen hasi gara. Beti haserre ibiltzen gara.

■ Azken kapituluan tiroz zauritu- tuta gelditu zen semea. Bizirik aterako da?

Nik uste dut hil egingen dela. Jende askok galdetzen dio aitari, eta aitak esaten du sendatzen dela, baina nik badakit hil egin behar duela.

■ Galdera askotan aipatu dizut aita, eta pentsatzen dut jende askok ere hala egingo duela. Aspertzen edo amorrarazten al zaitu ia beti aitaren itzalean egoteak?

Ez, ni berarengatik hasi nintzen, eta ez naiz behin ere asper- tu. Jendeak beti galdetzen dit aitarenera ailegatuko naizen, baina ni neurearekin konformatzen naiz.

■ Igandean hasiko dira santibur- tziok, Leitzako jaiak. Festa- zalea zara?

Hamabi urterekin gaupasa egin nuen, baina aurtan ezingo dut, erakustaldiak ditut eta.

■ Aukera duzunean, nola nahiago dituzu jaiak: gauze ala egunez? Gauze da hobereana.

■ Eta kalimotxo edaten duzue, edo oraindik ez?

Alkohola deus ez. Lehengo urtean lehengusuak eskaini zigun zerbeza baso bat, eta nik beste bati eman nion. Ardo pixka bat urarekin igual.

■ Musika kontuan, bakalaua ala trikitixa?

Orain dela gutxi Nino Bravo aditzen nuen, eta orain Gozategi eta horiekin hasi naiz.

■ Nesketan hasi zarete ja, edo koadrilan ibiltzen zarete? Koadrilan, lagunekin. x

s o s l a i a

Inazio bost urte zituela eraman zuten aurreneko aldiz harri- jasotze erakustaldi batera, baina lotsatu eta harria jaso gabe itzuli zen etxera. Aurreneko erakustaldian hamarika kiloko egurra, aitak egindakoa, jaso zuen. Gero hamabost kiloko bola jaso zuen. Orain hiru aldiz ere altxatzen ditu 100 kilokoak.

Harriak etxeko sotoan gordetzen dituzte. Aitarenak eta semearenak bilduta, kolekzio ederra osatu dute. Entrenatu ere han entrenatzen da Inazio gaztea, egunero ordubete, negu edo uda izan.

Hamalau urteko arreba lehen aritzen zen harri jasotzen, baina azkenaldian utzi samarra dauka; harategian eta etxeko lanetan ibiltzen da gehiago. Anaia gazteenak, berriz, ez du zaletasunik. Aitak harriak aurrean jarri zituztionean, gainean eseri eta salto bai, baina harriak ez zituen probatu ere egin. Nahiago omen du futbola.

«Aita telebisiolan baino okerragoa da etxean: hemen Goenkalen baino bronka gehiago botatzen ditu»

BEKARIO!

Zaldi Eroa

